

5. Nazioarteko instituzioen estrategiak desberdintasunaren inguruan

Azkenaldian nazioarteko erakundeek desberdintasunaren hazkundearekiko kezka agertu izan dute eta bere txostenetan hazkunde honen inguruko datuak eta analisiak kaleratu. Are gehiago, erakunde hauek arazo honetaz egiten duten irakurketa da gaiari buruz iritzi publikoan nagusitzen den ikuspegia eta berari aurre egiteko martxan jarritako ekonomi politika eta estrategien oinarri.

Atal honetan nazioarteko esparruan esanguratsuak diren erakunde nagusien ikuspegia jorratuko da, labur bada ere. Horretarako bi multzo egin behar dira hasieratik. Bata Washington-go Kontsentsuaren¹ izenarekin ezagutzen diren erakundeena eta beste Nazio Batuen, eta batez ere, GNBE-arena.

Washington-go Kontsentsuaren ikuspegia honela laburbildu daiteke: arazoaren muina globalizazioak eragindako testuinguru berrian herrialdeek jarraitutako ekonomi politika okerrean dago. Zuzendu daitekeen egoera da eta herrialdeari berari dagokiona. Ekonomi politika zuzenak aplikatuz (liberalizazioa eta egonkortasun makroekonomikoa gehien bat) pobrezia eta disparekotasunak gainditzeko moduan egongo da herrialdea, beste ezeren beharrik gabe. Ez da beharrezko nazioarteko ordenuan aldaketarik egiterik herrialdeek beren egoera hobetzeko. Ez dago nazioarteko komunitatearen erantzukizunik, herrialdearena baino.

Aldiz, GNBEak pertsonak jartzen ditu merkatuaren aurretik. Ekonomia eta garapen prozesuaren helmuga eta ez bitarteko soil. Horrela egun nazioartean dauden errenta desberdintasun izugarriak bidegabeak jotzen ditu, batzuk bere bizi aukerak garatzeko moduan dutelako baina asko eta askok- hegoaldeko herrialdeetakoak gehienak- ez dutelako. Bidegabekeri hau ez da berez sortua, herrialdearen okerren ondorio. Nazioarteko ordenu ekonomiko politikoak eta azkenaldian aurrera eramane den globalizazio molde honek eragin zuzena izan dutela desberdintasunaren hazkundera. Ondorioz, mundua beste modu batera antolatzeko beharra aldarrikatzen du. Ekonomi izaerako globalizazioak maila politikoan ere mundu mailako erakunde globalak beharrezkoak dituela indar ekonomiko horiek pertsonen zerbitzura jartzeko. Munduaren gobernu global berri hori zehazteko orduan boluntarismoa baino ez badu agertu ere².

¹ Washington-go kontzientzia bertan egoitza nagusi duten nazioarteko bi erakunde nagusi (Munduko Bankua eta Nazioarteko Moneta Fondoa) jarraitutako estrategiei deritza. Hauek ikuspuntu neoliberala landu eta martxan jartzeko proposamenak egin dituzte bai Iparraldeko herrialdeentzako bai hegoaldekoentzako.

² Idea hauek garatuagoak eta osatuagoak izateko interesa duenak ikus Dubois (2002).